

Gurasoak agur,  
Mezu honetan ikastolako azken berriak eta oharrak dituzue.

## **OHAR OROKORRAK (OO)**

### **TANTA**

Dakizuenez, Euskal Herriko Ikastolak, TANTA ekimena sortu genuen Ikastolon berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpen eta finantza bide bezala eta herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde, 5 euroko ekarpena eginez egikarrituko da. TANTA txartel bakoitzeko ikastolak gure proiektua aurrera ateratzeko bultzada ekonomikoa jasotzen dugu. Diru iturri hau Kilometroak ekimenaren barneko ekintza bat da. Dakizuen bezala, aurren, COVID-19ak eraginda ezin izango da KILOMETROAK jaia ospatu orain arte ezagutu izan dugun bezala. Baina hainbat ekimen desberdin aurreikusten dira honen izaera ez galtzeko. Bildutako elkartasunaren zati bat herritarrei itzultzeko, 60.000 euroko sariaren zozketa 2021eko ekainaren 21ean egingo da notario aurrean.

Egoera honen aurrean, gure elkartasuna adieraztea ezinbestekoa ikusi du Batzordeak. Beraz, familia eta langile bakoitzari bina TANTA txartel helaraziko dizkizuegu, bakoitza 5 euroren truke.

Txartelak, zuen seme-alaba gazteenen bitartez helaraziko zaizkizue martxoaren 1ean Norbaitek txartelik nahiko ez balu, mesedez itzuli txartelak idazkaritzara, datorren martxoaren 10a baino lehen. Txartel hauen kobrantza Ikastolara emanda duzuen kontu korrontean kargatuko zaizue martxoaren 15ean errezibo bidez.

[TANTARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO](#)

### **ELKARTASUN IKASTOLAK**

Elkartasun Ikastolek 800.000 euro banatu dituzte ikastolen hamar proiekturi laguntzeko. Ikastola guztiok osatzen dugun Elkartasun Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen Batzar Nagusiak erabaki du, guztira 802.324 euroko dirulaguntzak banatzea ikastolen hamar proiekturi laguntzeko. Jarraian ikus dezakezue [AURREKO URTEKO BIDEOA](#), non Elkartasun Kutxari buruzko informazioa adierazten den. Ikastolak, Euskal Herri osoan zehar Euskara eta Ikastola proiektuak bultzatzeko egiten dugun esfortzuaren adierazgarrietako bat da. [INFORMAZIO GEHIAGO](#)

### **BIHARKO EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA**

Biharko Euskal Hezkuntza Sistema gaurtik eraikitzen hasteko ekarpena egin dute ikastolek. "Gaurtik da bihar"; esaldi horrekin amaitu zuten ikastolek, atzo, Irungo Ficoba erakustazokan, Euskal Hezkuntza Sistemak bere baitan jaso behar dituen oinarrien ENDEKALOGOIA aurkezteko egin zuten aurkezpenean. Gaurtik da bihar, eta ENDEKALOGOIA biharko Euskal Hezkuntza Sistema gaurtik eraikitzen hasteko egin duten ekarpena dela azaldu zuten. [INFORMAZIO GEHIAGO](#)

### **KIROL AZPIBATZORDEAREN OHARRA**

"Eguraldiak lagunduta eta eskola kiroleko jolas saioak martxan daudenetik, geroz eta haur eta guraso gehiago geratzen zarete Ikastolako patioan arratsaldeetan. *Beraz, gogorarazi nahi dizuegu ikastolako patio Eskola Kiroleko jolas saioak dituztenentzat soilik dagoela irekita eta mesedez protokoloak betetzen lagundu.* Sarrera eta irteeretan kontuan izan jolas saioetan edo gorputz hezkuntzako saioetan dabiltzan ikasle eta irakasleak, horregatik eskertuko genuke jolas zelai erditik ez pasatzea.

## “EGUNEAN BEHIN” IRABAZLEAK

Egunean Behineko Ikastolako bi taldeak martxan jarri direnetik aste bat pasa da eta dagoeneko baditugu lehen irabazleak. Honako hauek dira otsailaren 15-21 asteko irabazleak:

- Zarauzko Ikastola taldea: **MPM, 545,59 puntu**
- Zarauzko Ikastola DBH taldea: **Arixen, 506,95 puntu**

[Ikastolako webgunean](#) astero jarriko ditugu nortzuk izan diren asteko irabazleak.

Sariak jasotzeko, Idazkaritzatik pasa zaitezkezte astelehenetik ostiralera, 8:30-17:00 artean. ZORIONAK irabazleei eta animo gainontzekoei, aste honetan sariak irabazteko aukera berria duzue eta!

## MARTXOAK 8

Martxoaren 8a dela eta, Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio herrietako ikastetxeek eta udalek, elkarrekin, berdintasuna landu, sustatu eta aldarrikatuko dugu. Gai hau ikasturte osoko lanketa den arren, martxoaren 8ari indarra emateko, berariazko lanketa egingo dugu gure ikastolan. Lanketaz gain, ikastolan egunari dagokion pankarta eta zapi moreak eskegiko ditugu.

Familiei eta herritarrei gurekin bat egitea eskatu nahi dizuegu. Zuek ere, zuen egunerokotasunean eta ingurunean jarraitu berdintasuna lantzen, sustatzen eta aldarrikatzen. Ez etsi eta eskura baduzue, balkoietan zapi moreak jartzea eskatzen dizuegu.

## GUK AUKERA, GUK 16!

Ditxosozko pandemiak erritmoa motelarazi digu, baina hemen jarraitzen dugu lanean, aurrera egiteko gogo biziz!

**Mugikorraren erabileraren inguruan hausnarketa egiten jarraitzea eta hausnarketa hauek elkarrekin partekatzeko topaguneak eskaintzea** ezinbestekoa iruditzen zaigu, eta horren harira, **tailer bat** antolatu dugu.

**Saio dinamiko eta partehartzailea** izango da. **Guraso guztiok gonbidatuta** zaudete, **eta bereziki LH5, LH6 eta DBH1eko gurasoak** gonbidatzen zaituztegu, maila horietan gaiak duen garrantzia ikusita.

Ahalik eta lagun gehiagorengana iristeko, bi data jarri ditugu aukeran:

**Martxoak 3, asteazkena. 18:00-19:30**

**Martxoak 6, larunbata. 11:00-12:30**

Lekua: Itxasmendi auzoko lokala (Alfa parke ondoan dagoena).

Osasun-protokoloak eskatzen dituen neurriak jarraituko ditugu eta, horretarako, **izen-ematea eskatuko dizuegu, zein egunetan etorriko zareten esanaz** (bietan etortzeko aukera baduzue, esan, mesedez: antolakuntza erraztuko diguzue eta).

Izena ematen duzuenok osasun-neurriei buruzko informazio zehatza jasoko duzue. **Izen-emate epea: Martxoak 1**

**Izen-ematea:**

<https://forms.gle/KibdXaHMFs6CSR1j7>

Animatu eta etorri, saio aberatsa izango da: gaiaren inguruko gure bizipenak eta kezkek partekatzeko topagune ederra!

## LH OHARRAK (LH)

**LH1-LH6 - EGONALDI IREKIAK**

Hiru eguneko iraupena izango duen egonaldi irekia antolatzen ari gara Ikastolen Elkarteko aisialdi taldearekin batera. Martxoaren 29, 30 eta 31n goizero, Ikastolan jolas eta tailer desberdinak garatzeko. Izen ematea, jarraian bidaltzen dugun [estekako](#) inprimakia bete eta bidaliz egin behar da, **martxoaren 5a baino lehen**.

Atxikituta bidaltzen dizuegun kartelean aurkituko duzue informazio guztia.

[KARTEL INFORMATIBOA](#)

Bestarik gabe, adeitasunez,

ZUZENDARITZA

Estimadas familias:

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa.

## **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**

### **TANTA**

Como sabéis, las Ikastolas de Euskal Herria creamos la iniciativa TANTA como medio de solidaridad y financiación a favor del proyecto educativo propio de la Ikastola. Las ikastolas por cada tarjeta TANTA recibimos el impulso económico para sacar adelante nuestro proyecto. Esta fuente de ingresos es una acción dentro de la iniciativa Kilometroak. Como sabéis, este año, el COVID-19 imposibilita la celebración de esta fiesta como la hemos conocido hasta ahora. Pero se prevén diferentes iniciativas para no perder la naturaleza de ésta. Para devolver a la ciudadanía parte de la solidaridad recogida, el sorteo del premio de 60.000 euros se realizará ante notario el 21 de junio de 2021.

Ante esta situación, la Junta Rectora ha visto imprescindible mostrar nuestra solidaridad. Por lo tanto, os haremos llegar a cada familia y trabajador/a dos tarjetas de TANTA por 5 euros cada una.

Las tarjetas se os harán llegar a través de vuestros hijos o hijas más jóvenes el 1 de marzo. Si alguien no quiere tarjeta, por favor devuélvanlas a secretaría antes del 10 de marzo próximo. El cobro de estas tarjetas se realizará el 15 de marzo mediante recibo en la cuenta corriente que tienen entregada a la Ikastola.

[TANTARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO](#)

### **ELKARTASUN IKASTOLAK**

**Elkartasun Ikastolak ha repartido 800.000 euros para ayudar a diez proyectos de ikastolas.**

La entidad Elkartasun Ikastolak Europar Kooperatiba, formada por todas las Ikastolas, ha acordado repartir 802.324 euros en ayudas a diez proyectos de Ikastolas. A continuación podéis ver [EL VIDEO](#) del año anterior donde se muestra información sobre Elkartasun Kutxa. Es uno de los exponentes del esfuerzo que realizamos las ikastolas para impulsar los proyectos en favor del Euskara y las Ikastolas en toda Euskal Herria. [MAS INFORMACIÓN](#).

### **SISTEMA EDUCATIVO VASCO DE MAÑANA**

"Desde hoy es mañana", frase con la que finalizaron las ikastolas la presentación, ayer en el recinto ferial Ficoba de Irun, del Endecálogo de bases que debe recoger el Sistema Educativo Vasco. Desde hoy es mañana y explicaron que el ENDECÁLOGO es la aportación que han hecho para empezar a construir desde hoy el Sistema Educativo Vasco de mañana. [MÁS INFORMACIÓN](#)

### **NOTA DE LA COMISIÓN DE DEPORTES**

"Desde que el buen tiempo nos acompaña y están en marcha las sesiones de deporte escolar, cada vez son más los niños, niñas, padres y madres que se quedan por las tardes en el patio de la Ikastola. *Por lo tanto, os recordamos que a esa hora el patio está destinado únicamente y solicitamos vuestra ayuda para poder cumplir los protocolos.* En las entradas y salidas tened en cuenta al alumnado y profesorado que están en sesiones de juegos o de Educación física, por lo que os agradeceríamos que no pasarais por el centro del patio.

## **GANADORAS DE “EGUNEAN BEHIN”**

Desde que se han puesto en marcha los dos grupos de “Egunean Behin” ha pasado una semana y ya tenemos los primeros ganadores. Las ganadoras de la semana 15-21 de febrero son:

Grupo Zarauzko Ikastola: **MPM, 545,59 puntos**

Grupo Zarauzko Ikastola DBH: **Arixen, 506,95 puntos**

Para recoger los premios podéis pasar por Secretaría de lunes a viernes de 8:30 a 17:00. ¡Enhorabuena a las ganadoras y ánimo, que esta semana tenéis una nueva oportunidad de ganar premios!

## **8 DE MARZO**

Con motivo del 8 de marzo, los centros escolares y los ayuntamientos de Zumaia, Getaria, Zarautz y Orio, conjuntamente, trabajaremos, promoveremos y reivindicaremos la igualdad. Aunque este tema es un trabajo a realizar a lo largo del curso, para darle más fuerza al 8 de marzo, realizaremos un trabajo específico en nuestra ikastola. Además, colgaremos la pancarta y los pañuelos morados correspondientes al día.

Queremos pedir a las familias y a la ciudadanía que se sumen a nosotros/as. Vosotros/as también podéis seguir trabajando, fomentando y reivindicando la igualdad día a día y en vuestro entorno. Os pedimos que pongáis pañuelos morados en los balcones.

## **GUK AUKERA, GUK 16!**

La pandemia nos ha hecho ralentizar el ritmo, pero aquí seguimos trabajando, ¡con ganas de avanzar!

Nos parece imprescindible seguir reflexionando sobre **el uso del móvil y ofrecer puntos de encuentro para compartir estas reflexiones**, y en este sentido, hemos organizado un taller. Será una sesión dinámica y participativa. **Todos los padres y madres estáis invitados**, y especialmente **los padres y madres de LH5, LH6 y DBH1**, dada la importancia del tema en estos niveles.

Para llegar al mayor número posible de personas, hemos puesto dos fechas a elegir:

**Miércoles 3 de marzo. 18: 00-19: 30**

**Sábado 6 de marzo. 11: 00-12: 30**

Lugar: local ubicado en el barrio Itxasmendi (junto al parque Alfa).

Se seguirán las medidas requeridas por el protocolo sanitario, para lo cual se os solicitará **la inscripción indicando el día de vuestra asistencia** (si podéis acudir en ambos casos, por favor, decírnoslo ya que nos facilitarán la organización).

Las personas que os apuntéis recibiréis información detallada sobre las medidas sanitarias.

**Plazo de inscripción: 1 de marzo**

**Inscripción:** <https://forms.gle/KibdXaHMFs6CSR1j7>

## **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**

### **LH1-LH6 - ESTANCIAS ABIERTAS**

Estamos preparando junto con el grupo de tiempo libre de Ikastolen Elkartea unos talleres de tres días de duración. Los días 29, 30 y 31 de Marzo, se llevarán a cabo diferentes actividades como juegos y talleres. Para apuntarse por favor rellenar el formulario clicando el siguiente [enlace](#). **Fecha límite para apuntarse, 5 de Marzo.**

[CARTEL INFORMATIVO](#)

Sin otro particular, un saludo,

## ZUZENDARITZA